

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2019KO UZTAILA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %1,2 gehitu ziren 2019ko uztailean

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera harturik, %3,7ko gehikuntza izan da gualdietan uztailean

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2019ko uztailean 39.636 izan ziren, 2018ko uztailekoen aldean %1,2ko igoera. Gipuzkoan %7,6 gehitu ziren eta Bizkaian %3,9 jaitsi ziren, nola Araban ere %0,3.

2019ko uztailean 10.944 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %2,5eko gehikuntza. Bidaiari-sarrerak %10,9 gehitu dira Bizkaian eta %9,9 Gipuzkoan, baina %32,2 jaitsi dira Araban.

Gualdiak, sarrerek eta batez besteko egonaldia Euskal Aeko apartamentu turistikoetan. 2019ko Uztaila

	Gualdiak		Sarrerek		Batez besteko egonaldia	
	2019/07	m/m-12 (%)	2019/07	m/m-12 (%)	2019/07	2018/07
EUSKAL AE	39.636	1,2	10.944	2,5	3,62	3,67
Estatukoak	24.996	-1,9	6.543	0,8	3,82	3,93
Atzerritarrak	14.640	6,9	4.401	5,1	3,33	3,27
ARABA/ÁLAVA	8.771	-0,3	1.344	-32,2	6,53	4,44
Estatukoak	6.714	-10,4	1.050	-33,0	6,39	4,78
Atzerritarrak	2.057	57,3	294	-29,3	7,00	3,14
BIZKAIA	15.094	-3,9	5.128	10,9	2,94	3,40
Estatukoak	9.671	-2,5	3.205	9,8	3,02	3,40
Atzerritarrak	5.423	-6,4	1.924	12,7	2,82	3,39
GIPUZKOA	15.771	7,6	4.472	9,9	3,53	3,60
Estatukoak	8.611	6,8	2.289	14,2	3,76	4,02
Atzerritarrak	7.160	8,5	2.183	5,7	3,28	3,20

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldia, uztailean, 3,62 egunekoa izan da, 2018ko uztailean 3,67 zelarik. Araban iazko 4,44 egunetik aurtengo uztaileko 6,53ra luzatu da; Bizkaian 3,40tik 2,94ra laburtu da; Gipuzkoan 3,60tik 3,53ra laburtu da.

2019ko uztaileko turista-balantzea: turista-sarrerak %1,3 igo dira; Gipuzkoa nabarmentzen da, %4,8ko hazkundearekin

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 360.497 sarrera erregistratu dira 2019ko uztailean, %1,3ko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %46,5 kontzentratzen dira, eta sarreraren batura %1,1 gehitu da. Gipuzkoan erkidegoko sarreraren %39,3 daude, %4,8ko gehikuntzarekin. Arabak Euskal AEko sarreraren %14,3 ditu, eta %7,8 jaitsi dira.

Gaualdiek, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %3,7 egin dute gora, hala nola lurraldeetako bakoitzean: %5,8 Gipuzkoan, %2,1 Bizkaian, %1,9 Araban.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Uztaila

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/07	m/m-12 (%)	2019/07	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	796.512	3,7	360.497	1,3
Araba/Álava	99.638	1,9	46.770	-7,8
Bizkaia	347.165	2,1	167.130	1,1
Gipuzkoa	349.709	5,8	146.597	4,8

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2019ko udako bi hilabeteetako (ekaina eta uztaila) balantzea Euskal AEn itxi da 684.125 turistaren etorrerarekin, iaz baino 17.448 gehiago, %2,6 gehiago. Lurraldeka, hazkunderik handiena izan da Gipuzkoan, 19.337 sarrera gehiagorekin, %7,4ko igoera. Bizkaian ere positiboa izan da balantzea, 3.631 sarrera gehiagorekin bi hiletan, %1,2 gehiago. Araban, aldiz, murriztu dira bidaiarien sarrerak 5.520tan, zeinek ekarri duen %5,8 gutxiago 2018ko ekainean eta uztailean baino.

Gaualdiak, bestalde, 1.445.065 izan dira, %4,5 gehiago 2018ko ekainean eta uztailean baino, 62.206 gaualdi gehiago orotara. Hiru lurraldeetan egin da aurrera. Gipuzkoak du lidergoa 46.758 gaualdi gehiagorekin (%8); ondoren Bizkaia dator, %2,5ko hazkundearekin, 15.160 gaualdi gehiago; azkenik, Araba, 288 gaualdi gehiagorekin, %0,2ko igoera.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62